

GERNIKA-LUMO. Batasuneko zinegotziak abstenidu egin ziran, eta PSE-EE eta PPkoak ez ziran plenoan agertu

Azkenengo osoko batzarrean onartu dabe aurtengo aurrekontua

Guztira 14 milioi euro izango ditue, igaz baino ia milioi bi gehiago



ONINTZA ENBEITA

Udal azoketarako, 6.010,12 euroko aurrekontua onartu dabe, igaz onartu eben diru kopuruaren erdia.

Iratxe Astuy |

Aurtengo aurrekontuaren ganean erabagitzeko asteon izan dan osoko batzarrean, Gernika-Lumoko Udalak 14.035.340,68 euroko aurre-

kontua onartu dau. Diru kopuru hori, igaz emon zana baino handiagoa da. Izan be, igaz, Udalak ia milioi bat eta erdi euro gitxiago euki ebazan dirutan. 2002. urteko aurrekontua EAJ eta EAko zinegotzien

baiezko botoekaz onartu zan. Batasuneko ordezkariak abstenidu egin ziran, eta PSE-EE eta PPkoak, barriz, ez ziran plenoan agertu.

Genika-Lumoko Udalak hartuko dauan diru sarrera handie-

na, Foru Aldundiko Udalkutxatik izango da. Guztira, 5,7 milioi euro eskuratuko dauz diru poltsa horretatik. Ondasun higiezin zergetatik be, igaz baino diru gehiago lortuko dau; 1,7 milioi euro hain zuzen be. Ur, estolderia eta zaztarren zerbitzua emoteagatik, 1,8 milioi euroko diru sarrerea eukiko dau aurtun uriko Udalak.

Urte amaieran izango diran gastuen atalean, Gernika-Lumoko kirol patronatuak ia milioi bat euro emon beharko dauz. Diru kopuru hori, igaz inbertidu ebena baino %35,52 handiagoa da. Urbietako kiroldegian, 48.080 euroko inbertsinoa egingo dabe. Santanape kiroldegirako, 18.030 euro emongo ditue, eta Malosteko kiroldegirako, oster, 15.025 euro. Santa Luziako futbol-zelairako, oster, 12.020 euroko aurrekontua gorde dabe.

Euskaltegiak eta Kultur Etxea

Gernika-Lumoko Euskaltegiaren aurtengo aurrekontua 335.270,90 eurokoa da. Igazkoaren aldean, sail honetan %42,90eko igoerea emon da. Euskera arloan egingo diran ekintzak ordaintzeko, 16.527 euro emongo dira, eta jaso, oster, 22.537 euro jasoko dira.

Lanbide Hastapenarako Zentruak igaz baino asko be diru gehiagotz egingo deutso aurre urteari. Aurtun, Gernika-Lumoko Udalak 765.318 euro inbertituko dauz udal ikastetxe horretan. 2001. urteagaz konparata, igoera %172koa izan da.

Beste alde batetik, herriko Kultur Etxerako aurtun onartu dan aurrekontua, 1.126.314 milioi euro izango da. 2001. urteagaz konparata, %25eko igoera izan dau hain zuzen be. Musika etxeko matrikuletatik, 158.923 euro eskuratuko dira

DATUAK	
Aurrekontuaren zatiketea	
Urbietako kiroldegia.	48.080 euro.
Santanape kiroldegia.	18.030 euro.
Malosteko kiroldegia.	15.025 euro.
Santa Luziako futbol zelaila.	12.020 euro.
Kultur Etxea.	1.126.314 euro.
Udal Euskaltegia.	335.270 euro.
Gernika Museoa.	222.374,48 euro.
Uriko kaleen argitasuna.	114.192 euro.
Lumoko bide erromanikoa atontzeko.	12.020 euro.
Udal azokea.	6.010,12 euro.

eta zinema, antzerki eta beste-lakoak ikusteagaitik lortuko dan diru sarrerea 15.025 eurokoa izatea itxaroten dau Udalak.

Gernika-Lumoko Udalak aparteko beste inbertsino batzuk be aurreikusi dauz aurrekontua aztertu eta egite-rakoan. Izan be, Gernika Museolari 222.374,48 euro emongo deutesiez aurtun. Uriko kaleen argitasun sisteman, 114.192 euro galduko dira eta Lumoko bide erromanikoa atontzeko 12.020 euro.

Udal azokarako onartu daben aurrekontua, barriz, 6.010, 12 eurokoa da, igaz onartu ebenaren erdia.

AGENDEA

BERMEO

Antzerkia: Ramon Barearen *Sobre los prejuicios del tabaco* antzezlan antzeztuko dabe gaur Nestor Basterretxea udal kultur aretoan, 21:00etan. Sarrerea 3 euro.

Audizioa: Jose Antonio Egia Udal Musika Eskolako ikasleek udabarriko kontzertua eskainiko dabe gaur, 20:00etan, Eupeme Deuna elizan.

GERNIKA-LUMO

Musika: Gaur, Segundo Olaeta Musika Eskolako ikasleen audizioa, Elai-Alai aretoan, 19:00etan.

Erakusketea: Rafael Ogetaren pintura eta eskultura erakusketea inaugurauko dabe gaur, Kultur Etxean, 19:00etan.

Zinekluba: Jose Luis Guerinnek zuzendutako *En construcción* pelikula, Elai-Alai aretoan, gaur, 20:30ean.

FORUA

Zinema: Gaur, 6 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat pelikula emongo dabe Kultur Etxean, 17:30ean.

BERMEO. GR-38 izena daukan bidea interesgarria da kultura aldetik, eta ibilbidea bera egiteko be bai

Ardauaren eta Arrainaren Ibilbidea egiteko informazioa emoten dabe Turismo Bulegoan

I.A. |

Erdi Aroan, gure arbasoek egi-ten eben arraina eta ardaua saltzeko ibilbidea berreskuratu zantetik, askok erakutsi dabe bidea ezagutzeko interesa. Izan be, GR-38 izena hartu dauan bide hori, interes handikoa da; bai kultura aldetik, eta bai ibilbidea egiterakoan eremu natural zogarriak ikusteko aukerea emoten dalako.

Bermeotik hasi eta Oion (Arabako Errioxa) herriraino doan bide horretan, antxinako kaltza-

dak, torretxeak, mugarriak, baserriak eta baselizak ikusi leitez, besteak beste. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako paisaiatzozatu ez eze, Urkiolako Parke Naturalak, Gasteizko urtegiek, Toloño mendizerrak edo Basteriko lakuek gordetan daben aberastasun naturala be ezagutu leitez.

Bermeoko Turismo Bulegoan, ibilbide honen ganeke informazio guztia eskaintzen dabe. Ardauren eta Arrainaren Bidea nondik nora doan jakiteko, mapa bat kaleratu dabe eta ber-

tan herri bakotxean ikusi leitezkezan monumentu aipagarriak agertzen dira. Halandabe, laster baten ibilbidea seinalizatu egingo dabela esan dabe, Gasteiz aldean egin daben moduan.

Ardauaren eta Arrainaren Ibilbidearen Bizkaiko aldeari jagokon tramua, Bermeotik Durangoraino doa. Baina, halandabe, bide horrek beste adar batzuk be badaukaz. Gernika, Lekeitio eta Ondarroaraino doan bide adarrak hain zuzen be.

Gaur egun, GR-38 deritxo-

gun ibilbidean, antxina mandazainak eta merkatariek ibiltzen ziran. Bermeo, Lekeitio eta Ondarroako portuetatik arrain freskoa edo gazitutako arrainez beteta eroaten ebezan mandoak, eta Errioxa, Nafarroa eta Gaztelatik etxera bueltetan ziran, gariz, gatz, ozpinez eta ardauz kargata ekarten ebezan. «Merkatariek mendiak, sakanak eta bakarlekuak zeharkatzen ebezan. Batez be Bizkaian, bidea oso korapilotsua zan, lurraldearen orografia oso malkartsua zalako», azaltzen da Arrain eta Ardauren Ibilbidearen ganeke liburuxkan. Bide hori ikusteko, oinez zein bizikletaz egin leitezke.